



Nagusia kalea, 28
31.820 Etxarri-Aranatz
TFNOA: 948.460.752
MOBIKORRA: 608 034 652
e-mail: info@etxarriogz.eus

JAIBUSA ITZULI DA. BA AL ZENEKIEN JAIBUSA TRAFIKO ISTRIPUAK MURRIZTEKO PROGRAMA BAT DELA?

Bi urteko geldialdiaren ondoren, normaltasuna eta bizitza soziala berreskuratzen ari garen honetan, Herrietako jaiak ere hasiko direnean, Jaibusera itzultzeko unea da.

Gogoan izan gure eremuko jaiegunetarako trafiko-istripuak prebenitzeko programa dela. Etxeratze eta trafiko-istripuak murrizteko baliabideak erraztea du helburu, eta, horrez gain, herritarrak kontzientziaztea autokontrolari buruz dugun erantzukizunaz kontsumoei dagokienez, baita kontsumitu osteko jokabideei dagokienez (adibidez, autoa kontsumitu ondoren hartzea).

Aldi berean gogorarazte dugu, gidatzen duten pertsoneri eta adinez nagusiak direnei zuzendutako programa dela.

Errealitate bat da gure inguruan gazteak inguruko herrietara joaten direla, horrek dakartzan arriskuekin (autoan edaten duten pertsonekin ibiltzen badira...). Horregatik, 16 eta 17 urtekoei erabilera baimentzeko salbuespena egiten dugu. 16 eta 17 urte bitarteko gazte horiek Jaibusa erabili ahal izateko, beren familien baimena izan beharko dute, eta gurasoek edo legezko tutoreek egin beharko dute beren eremuko oinarrizko gizarte-zerbitzuan, adingabearen argazki bat eramanez eta inprimaki bat betez.

Prebentzio-programetatik, garrantzitsua iruditzen zaigu honako ideia hau azpimarratzea: zenbat eta gazteagoa izan eta kontsumo-guneetan denbora gehiago igaro, orduan eta aukera gehiago dago kontsumitzeko eta haiekin arazoak izateko.

Oinarrizko gizarte zerbitzuak honako helbideetan daude:

**► ETXARRI ARANATZ – Tfnoa: 948460752
31820 Kale Nagusia, 28**